



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN

Hobetzeko proposamenak Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena Ikasturtea 2009/2010



CONSEJO
ESCOLAR
DEL ESTADO

educacion.gob.es

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena

2009/2010 ikasturtea



MINISTERIO DE EDUCACIÓN
Consejo Escolar de Estado

Edita:
© SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA
Subdirección General de Documentación y Publicaciones

Catálogo de publicaciones del Ministerio: educacion.gob.es
Catálogo general de publicaciones oficiales: publicacionesoficiales.boe.es

Fecha de edición: 2011
NIPO: 820-11-336-6

Depósito Legal: M-56: 8; -2011

Imprime: Estilo Estugraf Impresores, S.L.

AURKIBIDEA

Orria

Aurkezpena 7

Hobetzeko proposamenak

0. Orokorrean..... 15

1. Haur Hezkuntza..... 19

2. Derrigorrezko hezkuntza..... 21

3. Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoak 25

4. Hezkuntza-inbertsioa 27

5. Berdintasuna, bizikidetza eta partaidetza ikastetxeetan 30

*6. Desgaitasunaren ondoriozko hezkuntza-premiak dituzten ikasleen
inklusioa*..... 33

AURKEZPENA

Estatuko Eskola Kontseiluak –kontsultak egiteko eta parte hartzeko hezkuntza-komunitatearen (unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzena) organo gorenak– hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko urteko txostena gauzatu, onartu eta argitaratu du LODE Legearen 25. urteurrenean (konstituzio-agindu bat betez sortu zuen LODEk Kontseilu hori). 2009/2010 ikasturtean Ministerioaren eta hezkuntza-komunitatea ordezkaten duten erakundeen arteko eztabaida- eta negoziazio-proiektua nagusitu da hezkuntzaren aldeko Itun Soziala eta Politikoa lortzeko, itxaropen handiak piztu zituen prozesua, baina, tamalez, arrakastaz bukatu ez zena. Ikasturte honetan, gainera, LOEk sartutako sistema eta LOEren finantziazio-plana ezartzen bukatu da. Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetara eta Batxilergoko 2. mailara hedatu da, Unibertsiterako Sarbide Probaren eredu berria jarri da abian eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei Diagnostiko Ebaluazio Orokorra aplikatu zaie; horrek esan nahi du sistemak hemendik aurrera tresna zorrotz bat izango duela emaitzen bilakaera zein den jakiteko. Bestalde, Espainiak bidegabeki Europar Batasunaren Presidentzia izan duen urte honetan, hezkuntza Europa 2020 estrategiaren muina izan da.

Ikasturte honen alderdirik nabarmenena DBH titulua lortu duten hamabost urteko ikasleen tasak izandako portaera ona izan da; tasa hori % 74 izan baita 2008/2009 ikasturtean, 2006/2007 ikasturtean, aldiz, % 69,2 izan zen. Zifra horiei helduen hezkuntza-erregimenean –presentziazkoan eta urrunekoan– titulazioa lortu duten ikasleen % 7,8ko zifra erantsi behar zaie; horregatik, DBH titulua lortu dutenen tasak % 81,8 dira; azken zifra horrekin 10 puntutik gora urruntzen gara derrigorrezko irakaskuntza arrakastaz bukatzea lortu ez zuten ikasleen % 30eko zifra txarretik. Era berean, positiboa da 17 eta 18 urteko ikasleen eta derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoetan titulua lortu duten ikasleen eskolatze-tasek izandako igoera; horregatik, esan dezakegu joera-aldaketa baten aurrean gaudela. Hori dela-eta, ezinbestekoa da gizarte osoaren baterako ahalegina krisialdiaren ondoriozko austeritate-politikek agindutako aurrekontu-murrizketek hezkuntzari ez eragiteko. Gure herrialdeak ezin du inondik inora onartu hasitako hobekuntzan atzera egitea.

Kontseiluak oso pozik ikusi du azken urteetan hezkuntza-administrazioetara bidali dituen iradokizun eta gomendio askori harrera ona egin dietela. Izan ere, abian jarri diren edo egikarituko direla iragarri diren oso neurri garrantzitsuetan ikus daitezke arestian aipatutako iradokizun eta gomendio horiek. Horien artetik honako hauek nabarmendu behar dira: Educa 3 Planaren hedapena, laguntzako eta errefortzuko planen emaitza onak, hizkuntza-mailaren hobekuntza, eta, oso bereziki, hezkuntza-sistema malgutu izana, hori lortzeko DBH 4. mailaren izaera orientatzailea indartu egin baita edo HLPPak gainditu ondoren erdi mailako prestakuntza-zikloetan sartzen lagundu baita ikasleek sistema ez uzteko titulaziorik lortu gabe. Era berean, Kontseiluak behin eta berriz egin duen proposamena onartu da, hots, DBH titulua lortzen ez duten ikasle guztiak jasotako oinarritzko gaitasunen ziurtagiria, beren prestakuntzarekin jarraitzea ahalbidetuko diena, lortzeko proposamena.

Halaber, pozik egon gaitzke, zeren hartutako neurrietako batzuetan aintzat hartu baitira biztanleriak krisialdian dituen prestakuntza-premiak, eta ahaleginak egin dira ikasle guztiak beren prestakuntzarekin (akademikoa nahiz profesionala) jarraitzeko aukera izateko eta hezkuntza-sistema utzi zutenak hezkuntza-sistemara itzul daitezke laguntzeko, prestakuntza eta enplegua bateratzea ahalbidetzen duten formulak erabiliz. Ildo horretatik, Kontseiluak oso modu positiboan balioesten du Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa Lurralde Lankidetzako Programen barruan sartu izana.

Zalantzarik gabeko aurrerakuntzak izan direla onartzen badugu ere, Kontseilua oso kezkatuta dago oraindik gainditu ez diren gabeziekin. Gabezia horien artean lurraldeen artean dauden alde garrantzitsuak aipatu behar ditugu; izan ere, alde horiek gizarte-kohesioa gutxiagotzen dute eta Haur Hezkuntzako lehen zikloaren eskolatzearen hedapen heterogeneoan ikusten dira, hainbat lurraldetan ez baitira kalitatearen gutxieneko mailak beti bermatzen emandako hezkuntzan. Orobat, oso nabarmena da hezkuntza-administrazioek egindako inbertsioan dagoen aldea, eta alde horrek zuzenean eragin dezake eskaintako zerbitzuaren kalitatean. Lurraldeen arteko alde horiek mailarik kezagarrienera iristen dira ikasleen emaitzak ikusten direnean, bai estatuko eta nazioarteko ebaluazioei dagokienez, bai titulazio-tasei

edo eskola behar baino lehenago uzten dutenen maileri dagokienez. Azpimarratu behar dugu bere ekitate- eta arrakasta-gabeziak alboratu dituen hezkuntza-sistema bat dela esan dezakegula baldin eta derrigorrezko ikasketak titulaziorik gabe bukatzen dituzten gazteen ehunekoa errotik murriztea lortzen bada, eta batez ere, Autonomia Erkidego batzuen eta beste batzuen artean dauden alde nabarmenak desagertzen badira.

Berriz ere esan behar dut Kontseiluaren lehentasunezko helburua, Espainiako gizarte osoak bere gain hartu behar duena, hezkuntzaren kalitatea hobetzea dela. Eta kalitatea hobetzeak esan nahi du emaitza onak lortzeaz gain, ekitatearen eta bikaintasunaren arteko oreka lortzea lurralde guztietan, eta gazte guztiek emaitza hoberenak lortzea ikasten duteneko ikastetxea edozein izanik ere. Horretarako, ezinbestekoa da eskolatzeko orekatua bermatzea ikasle guztien artean, eta zailtasun handiagoak dituzten ikasleei arreta egokia ematea.

Oraindik ere indarrean jarraitzen du, halaber, Kontseiluak ebaluazioaren kulturaren alde egiten duen defentsak, baita hezkuntza-administrazioek hartutako konpromisoaren alde egiten duenak ere, konpromisoak honako hauek izanik: alde batetik, hasitako politikak izan duten arrakasta-maila adierazle bitartez neurtzeko konpromisoa; bestetik, diagnostiko-ebaluazioek iradokitzen dituzten hobekuntza-neurriak aplikatzeko; eta, azkenik ikasleek dituzten premiei ahalik eta modurik eraginkorrenean erantzutea ahalbidetuko dien autonomia ematea ikastetxeei antolamenduaren, pedagogiaren eta kudeaketaren arloan, kontuan hartuta autonomia horren berri eman beharko diotela gizarteari dagozkion ebaluazioak eginez.

Aurreko ikasturteetan bezala, 2009/2010 ikasturteko hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko Txostena arretaz irakurri ondoren ateratzen diren etorkizuneko erronkak aipatu nahi ditut, eta, orduan bezala, Kontseiluak hezkuntza-administrazioei dei egiten die erronka horiei lehenbailehen eta eraginkortasunez aurre egin diezaieten:

1. Datozen urteetan hezkuntza-sistemak izango duen erronka handiena hezkuntzako inbertsioari eustez gain inbertsio hori pixkanaka handitzea izango da BPGaren % 7raino iritsi arte, era horretan gure inguruneke herrialdeekin alderatuta gure herrialdeak dituen gabezia historikoak gainditu ahal izango baitira, eta egindako lorpenetan atzerakadarik ez izatea lortuko baita. Horregatik, Eskola Kontseiluaren ustez ezinbestekoa da Hezkuntzako Sektore Konferentziak hezkuntza-alorreko gastuaren gutxienerako maila –beti eutsi beharko litzaioke maila horri ezartzea, eta maila horretatik behera konprometitu geratuko litzateke kalitatezko hezkuntza-zerbitzu publikoa ematea. Era berean, eraginkortasun eta efizientzia handienak gastuaren lehenetsunetan partekatutako eta koordinatutako politikak eskatzen ditu.
2. Hezkuntza-administrazioek, Educa3 Planak hasitako ahaleginari eustez gain, etaparen kalitatea eta hezkuntza-izaera bermatzeko beharrezkoak diren adierazle guztiak ezarri behar dituzte Hezkuntzako Sektore Konferentzian. Ildo horretatik, Kontseiluak Estatu Administrazioari berriz adierazi dio komenigarria dela legeak aldatzeko behar den prozesuari hasiera ematea, prozesu horri esker Lehen Hezkuntzako lehen zikloan aipatutako kalitatezko maila bermatzen duten gutxienerako esparruak izango baitira.
3. Ikasleek arrakasta izateari dagokionez ikusitako joera-aldaketari hasiera eman dioten neurrietan sakondu behar da ikasle guztiak hezkuntza-arloan etorkizun oparoa izan dezaten: ikaskuntzaren zailtasunak azkar atzematea, hezkuntza-etapen arteko trantsizioa zaintzea, errefortzu-programei eustea eta haiek zabaltzea, diagnosi-ebaluazioen emaitzak aztertzea ahalbidetuko duten mekanismoak antolatzea eta ebaluazio horietatik ondorioztatzen diren jardun-planak abian jartzea eta ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan familien, ikasleen eta ikastetxearen arteko konpromisoak hartzen dituztela zaintzea.

4. Eskola-porrotari arrakastaz aurre egiteko premiazkoa da ikasturtea errepikatzearen problematika espezifikuari heltzea (sistema hori garestia izateaz gain ez da batere eraginkorra) eta arazo handiagoak dituzten ikasleei banakako arreta ematean oinarrituta dauden politikak garatzea, derrigorrezko hezkuntzako ikasturte bakoitzeko helburuak lortzeko. Era berean, derrigorrezko hezkuntza bukatzen dutenean ikasle guztiek prestatzen jarraitzeko aukera izan dezaten, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen behar adinako eskaintza izan behar da DBHko ikastetxe guztietan.
5. 16 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleen eskolatzetasetan eta goi-mailako bigarren hezkuntzan titulua lortu dutenen tasetan hobekuntzarako joera finkatzeko, derrigorrezkoa da Hezkuntzako Sektore Konferentziak Eskola Uztearen Prebentzio Planean aurreikusitako neurriak sustatzen jarraitzea. Ildo horretatik, Kontseiluak behin eta berriz esan badu ere Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloetako matrikula kopurua areagotzera eta goi-mailako bigarren hezkuntzako maila lortu ez duten helduak hezkuntza-sistemara itzul daitezen laguntzera bideratutako neurri guztiei lagunduko diela, era berean, Hezkuntzako Sektore Konferentziari gomendatzen dio mekanismo egokiak ezartzeko eskaintza Estatuko lurralde guztietan bateratzea lortzeko. Ezinbestekoa da, halaber, lan-esperientziaren eta ikaskuntza ez-formalen bitartez lortutako lanbide-gaitasunen ebaluazioa, aitortpena eta egiaztapena modu berean eta era koordinatuan egitea Estatuko lurralde osoan, langileen mugikortasuna bermatzearen.
6. Urte honetan ere ikusten da mutil ikasleek eta neska ikasleek emaitza akademiko desberdinak izan dituztela. Ikasle guztiak lan-munduan baldintza berdinetan sar daitezen, hezkuntza-administrazioek kanpainak sustatu behar dituzte, sexua edozein izanik ere ikasleen artean hezkuntza-aukera berdinak sustatzen dituzten kanpainak eta ahaleginaren nahiz berdintasunezko hezkuntzaren balioa ikasle guztiek sustapen pertsonala eta soziala lortzeko tresna egoki gisa bultzatzen dutenak.

7. Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-eredu inklusiboa defendatzen du eta haren ustez hezkuntza-administrazioei dagokie desgaitasuna duten ikasleek etapa guztietan behar dituzten laguntza-baliabideak ematea, hezkuntza-sisteman sartzeko ez ezik sistema horretan egotea eta igotzea ere bermatzeko, legeriak ezartzen dituen aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioen arabera.
8. Irakasleak sistemaren kalitatearen funtsezko elementuak dira. Horregatik, estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek bigarren hezkuntzako maisuen eta irakasleen prestakuntzaren (hasierakoa eta iraunkorra) kalitatea eta zorrotzetasuna bermatu behar dute. Era berean, premiazkoa da, ahal den neurrian, ikasturte honetan egin diren murriztapenen aurretik irakasleek zituzten ordainsarien maila berreskuratzea, haien agente morala eta profesionala ez ezik haien begirune soziala ere indartzea, eta baita benetako lanbide-sustapena ezartzen duen Irakasle Funtzionarioaren Estatutua negoziatzea ere.

Hartutako neurri guztien inpaktua zein den jakiteko, sistemako hainbat alderdiren joerak zorrotztasunez aztertzeke eta sistema hobetzea lortuko duten hezkuntza-politikak garatzeko, Hezkuntza Ministerioari eskatzen diogu Adierazleen Estatu Sistematan sartzeko hasten diren jardunak aztertzeke behar diren adierazle guztiak.

Txosten honetako alderdi formalak eta edukiak

Txostena onartzeko Osoko Bilkuran aurkeztu zuen txostengileetako batek adierazi zuenez, eztabaida-zeremonian eta txostenaren botazioan aditz asko (eskatu, eman, bermatu, lagundu, proposatu, egin, sustatu, ezarri, igo, errepikatu, gomendatu, piztu, ...) dituen liturgia dialektikoa erabili da, eta, askotan, aditzak amaierako oharra dauka erantsita, gainera: beharrezkoa izan, maila hobetu, modu positiboan balioetsi, asko kezkatu, kezka handiz ikusi, nahitaezkoa izan, gauzatu, eta abar. Hizkera horrek,

hezkuntza-komunitate osoarena izan nahi duenak, kontseilarien lan handia estaltzen du, eta lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiet kontseilari horiei.

Txosten honek aurreko ikasturteetako gaitutuen egiturari eusten dio kasu honetan azterketaren xede den 2009/2010 ikasturteko alderdi nabarmenen gainean arreta jartzeko asmoz, datuen aberastasunari eta estatistika- eta dokumentu-alorreko informazioaren ñabardurei uko egin gabe. Aurreko ikasturtean bezala, Kontseiluak Administrazioei igorri dizkien hobekuntza-proposamenak ahalik eta gehien hedatzeko gaztelaniaz nahiz Estatuko hizkuntza koofizialetan ez ezik ingelesez ere argitaratu dira. Hori guztia hezkuntza-komunitatearen erakunde-arloko eragina ahalik eta handiena izan dadin.

Txostena lau atal handitan egituratuta dago. *I. atalean* 2009/2010 ikasturteko gertakaririk nabarmenenak aztertzen dira.

II. atalean 6 kapitulu daude, zeinetan sistemaren alderdirik garrantzitsuenak biltzen diren.

III. atalean Hobetzeko proposamen guztiak biltzen dira, bai sistema osoari eragiten dioten proposamen komunak, bai *II. atala* osatzen duten kapituluaren edukiari buruzkoak direnak.

IV. atalean estatistika- eta dokumentazio-arloko informazioa biltzen da, epigrafeen arabera sailkatuta; epigrafe horiek aurreko ikasturteetako egiturari eusten diote datuak kontsultatzea, aurkitzea eta alderatzea errazteko.

Deskribatutako lau ataletan biltzen den informazio guztia papereko argitalpenarekin batera dagoen CDan bilduta dago (I., II. eta III. atalak). Bestalde, hobetzeko proposamenak separata batean argitaratu dira ahalik eta hedapen handiena izan dezaten.

Biziki nahi dut orrialde hauetan dagoen diagnostikoa egokia izatea, eta, bereziki, hezkuntza-komunitateak proposatzen dituen hobekuntza-proposamenak behar bezala hartzea hezkuntza-administrazioek eta gizarteak. Gure haurren eta gazteen etorkizuna hobetzen laguntzeko nahitaezko betebeharrak beteko baitugu horrela.

Carmen Maestro Martín
Estatuko Eskola Kontseiluaren presidentea

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

0. Orokorrean

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak erabakitasunez defendatzen du kalitatezko hezkuntza inklusiboaren eredu bat. Eredu hori egiteko, nahitaezkoa da beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak bermatzen dituen inbertsio bat egitea, eta Espainiako gizarte guztiaren baterako ahalegina eskatzen du.

Horregatik, hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie hainbat alderdi ahalbidetuko dituzten neurriak abian jartzea. Aipatutako alderdiak honako hauek dira: ikastetxeen hornidura hobea izatea, hezkuntza-orientazioko irakasle eta arduradunentzako kalitatezko prestakuntza (hasierakoa eta iraunkorra), hezkuntza-sistemaren ebaluazioa, kalitatea ekitatez faboratuko duten ekimenak eta lurralde-arloko nahitaezko lankidetzak, lurraldeetako hezkuntza-emaizetan oraindik ikusten diren desberdintasunak ez izateko.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak proposatzen du hezkuntza-administrazioek ikastetxeetako autonomia gauza dezatela, LOE Legeak ezartzen duen moduan, beren hezkuntza-proiektuak dituzten premien diagnosis egin ondoren gauzatzeko, irakasleen ekipoen lankidetzazko lanarekin, familien inplikazioarekin eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin. Hori guztia ikasle etorkinak, hezkuntza-sisteman berandu sartzen direnak, arazoak dituztenak edo eskola uzteko eta gizarte-bazterketako arriskuak dituztenak ez ezik hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ere erabat eta modu orekatuan eskolatzea eta ikastetxe publiko eta pribatuetan sartzeko bazter utzi gabe, betiere beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak modu ekitatiboan lortuz.

Ikastetxeen autonomia hertsiki lotuta dago ebaluazioarekin eta kontuak ematearekin. Horregatik, ikastetxeei barne-ebaluazioak egiten laguntzeko eta hezkuntza-sisteman dauden alderdi guztiei buruzko diagnostiko egokia egin ahal izateko, Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-administrazioei eskatu die ikaskuntzaren zailtasunak eta eskola behar baino lehenago uztea garaiz atzematea eta aniztasunaren trataerari dagokionez kalitateari buruzko ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleak garatzeko, baita hainbat azterlan egiteko ere, besteak beste, Haur Hezkuntzako bi zikloak ikastetxe desberdinetan bereizteak dituen abantaileri edo desabantaileri buruz, lurralde-eremuetan dauden proiektu elebidunei eta hirueledunei buruz, eta azkenik, ikasturtea errepikatzea osa dezaketen neurriei buruz, horien ondorioak positiboak izan daitezen eskola-arrakasta lortzeko.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak honako hau proposatu du: alde batetik, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak Hezkuntzako Sektore Konferentziaren bileretan duen presentzia arautzea Administrazioen artean (estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) koordinatzen diren hezkuntza-jardunak –eskolatutako haur eta gazte guztiei ematen zaien arreta integrala hobetzea eta, gainera, udalek hainbat gairi dagokionez, hala nola Haur Hezkuntzaren eskaintza orokortzeari dagokionez irakaskuntzaren programazio orokorretan duten partaidetza garatzea ahalbidetuko dutenak– bultzatu eta arrazionalizatzeko asmoz, eta bestetik, helduen hezkuntza, Erregimen Bereziko Irakaskuntzen eskaintza, ikastetxe publikoen mantentze-lanei, funtzionamenduei eta konponketei dagokienez udalek dituzten betebeharrak, Udal Liburutegiek irakurketaren inguruan egiten duten sustapena, IKTak gero eta kolektibo gehiagok erabiltzea, udalak eskaintzen duen laguntza etorkinen kolektiboak gizarteratzeko eta udalak duen erantzukidetasuna eskola-porrota gutxitzen lagundu duten neurri guztietan.

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak bat egin du Diputatuen Kongresuarekin eta hezkuntza-ondarea babesteari buruzko Ez Legezko Proposamenaren alde dago.

Proposamen horren bitartez, Gobernuari eskatzen zaio, Hezkuntzako Sektore Konferentziaren barruan, hezkuntzaren Ondare historikoa babesteko, zaintzeko eta hedatzeko Plan bat proposa dezala, ondare hori osatzen duten ondasunei buruzko inbentarioak eta katalogoak, dokumentu-funtsak eta bilduma zientifikoak zaintzeko neurriak, ikastetxe historikoak zaintzeko eta ondare horri buruzko ikerketa eta hedapena egiteko estrategia ez ezik desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza-ondarearekiko erabateko irisgarritasun unibertsala izango dutela bermatzeko estrategia eta plan hori egiteko aurrekontu-kredituak ere aintzat hartzen dituen programa hain zuzen ere.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez komenigarria da unibertsitatetik kanpoko Irakasle Funtzionarioaren Estatutuak benetako lanbide-sustapena –bertikala nahiz horizontala– ezartzea, irakasleei ondo egindako lana aitortzeko. Era berean, proposatzen da, ahal denean, ikasturte honetan murriztapen nabarmena izan duten irakasleen soldatak berreskuratzea. Halaber, premiazkoa da Irakasleen Funtzio Publikoaren Estatutua negoziatzea; izan ere, Estatutu horrek irakaskuntza publikoaren eskubideak eta betebeharrak ezarri, lanbide-profil egokiak definitu eta hezkuntza-eginkizun publikoaren duintasuna lege-mailan aitortzeaz gain, 60 urterekin hartutako borondatezko erretiroa aurreratuaren eta sustatuaren luzapen mugagabea bildu beharko luke. Neurri horrek, irakasleek betetzen duten eginkizunaren ezaugarriak direla medio irakasleei aitortzen zaien eskubidea izateaz gain, ahalbidetuko du adin jakin bat duen kolektiboaren berritze partziala gauzatzea. Halaber, Estatuko Eskola Kontseiluak Administrazio publikoei eskatu die 55 urtetik gorako irakasle guztiek beren eskola-orduak gutxienez heren bat murrizteko aukerari heldu ahal izatea, horrek beren ordainsarrietan murrizketarik eragin gabe.

Kontseiluak kezka handiz ikusi du diru-sarreraren % 30eko birjarpeneko tasa lehenengo aldiz aplikatzea irakaskuntza. Horregatik, Estatuko gobernuari eskatu dio datozen urteetarako % 100eko birjarpeneko tasa ezartzeko gutxienez, beren hezkuntza-premiei aurre egingo dieten plantilla egonkorrak bermatzeko ikastetxeetan.

Estatuko Eskola Kontseiluak behin eta berriz eskatu du irakasleen hasierako prestakuntza eta horien irakaskuntza-praktikak hobetzeko. Gaur egun, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila berriak eta espezializazio didaktikoko masterra Goi Hezkuntzako Europako Esparrura egokitzeko eremuan orokortzearen ondorioz, hainbat aldaketa esanguratsu batzuk gertatu dira eta aldaketa horiek prozesu horiek hobetu beharko lituzkete. Horregatik, Ministerioari eskatzen diogu behar adina datu emateko ezarpen-prozesu horiek aztertzeko, egokitzen hartzen diren ekarpenak egiteko, bereziki hezkuntza-praktikak egiteko ereduak buruz.

6.) Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez komenigarria da Administrazioen aurrekontuek ahalik eta epe laburrenean ahalbidetzea irakaskuntzako profesionalen soldata funtzio publikoko beren homologoen soldatarekin parekatzea benetan. Irakaskuntza itunduaren sektore-mahaiak, 2009/2010 ikasturtea amaitu denean eratu denak, eremu nagusia izan behar du, non sektoreak aspalditik proposatzen dituen gaiak gauzatzea ahalbidetzen duten neurriak gauzatu ahal izango diren. Aipatutako gaiak honako hauek dira, besteak beste: irakasle kopurua igotzea, egungo irakastordu kopurua murriztea, administrazioeko eta zerbitzuetako langileak ordainketa delegatuan sartzera edo erretiro partzial aurreratuari eustea aurreikusitako aldaketaren aurretik zeuden baldintzetan. Orobat, Kontseiluaren ustez ikastetxe itundu publiko eta pribatuetako irakasleek borondatezko erretiro aurreratua hartzeko eskubidea izan behar dute.

7.) Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, hezkuntza-sistema osoan sustatu behar dira, eta zeharka, espiritu ekintzailea ez ezik gizartean eta enpresan moldatzeko behar diren balioak eta gaitasunak ere, hala nola ahaleginaren kultura, ekintzailtza, erabakiak hartzea, talde-lana, arazoak aztertzea eta konponbidea aurkitzea, komunikazioa, sormena, berrikuntza eta abar, herrialdean inpaktu soziala eta ekonomikoa sortuko duten herritar ekintzaileak izateko etorkizunean.

Estatuko Eskola Kontseiluak proposatu du enpresaburuaren irudi erreala eta enpresak herrialdearen gizarte- eta ekonomia-garapenean duen rola hezkuntzara eramatea. Era berean, ezinbestekoa da eduki horiek hezkuntza-maila guztietako irakasleen prestakuntzan-hasierakoan eta etengabeen- biltzea eduki horiek, derrigorrezko hezkuntzako irakasleak ere kontuan hartuta.

1. Haur Hezkuntza

1.) Txiki-txikitako eskolatzea garrantzi bereziko alderdia da, bai ikasleek hezkuntza-sisteman izango duten bilakaera pertsonal eta akademikorako, bai ikasle horiek hezkuntza-alorrean izan ditzaketen laguntza-premia espezifikoak hasiera-hasieratik atzemateko.

Gure herrialdean lortu da etapako bigarren zikloan eskolatzeko-tasa handia izatea, Haur Hezkuntzaren lehen zikloan, aldiz, eskolatzeko-tasak ez dira behar adinakoak oraindik, Administrazioek ahalegin handiak egin dituzten arren. Horregatik, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die aurrekontu-ahalegina areagotzeko behar adina eskola-plaza publiko eskaintzeko (etorkizunean guztiak doakoak izan daitezkeen) Haur Hezkuntzako lehen zikloan dagoen hezkuntza-arretako eskaera bermatzearen, eta horrekin gure hezkuntza-sistemaren kalitatea eta ekitatea hobetzearen.

2.) Gai honi buruz aurreko ikasturtean egin zen hobekuntza-proposamenean adierazten zenez, hezkuntza-administrazioei dagokie, lege-agindu bidez, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzea. Horrek ekarri du heterogeneotasuna izatea lurraldeetan, ematen den hezkuntzan ez baitira behar diren kalitatezko gutxieneko mailak bermatzen beti. Toki-korporazioek 0-3 urteko Haur Hezkuntzaren eremuan duten zeregina gero eta esanguratsuagoa da, Educa3 Planaren ondoren, toki-korporazio horiek haur-eskolen titulartasun gehiena izan baitaitezke. Horregatik, Espainiako Udalerrien eta Probintzien

Federazioaren eta Autonomia Erkidegoetako haren organo baliokideen arteko koordinazioak hobea izan behar du, eta koordinazio hori, bereziki udalaren titulartasuneko ikastetxeak artatzen dituzten langileen lan-arloko arauak hobetzera hedatu behar da.

Estatuko Eskola Kontseiluak berriz ere esan dio Estatuko Administrazioari legeak aldatzeko behar den prozesuari ekin behar zaiola; prozesu horrek ahalbidetu behar du Haur Hezkuntzaren lehen zikloan ikasle guztiei kalitatea eta ekitatea bermatu dieten gutxieneko esparruak izatea hezkuntza-izaera duen etapa batean, eta prozesu horrek, aldi berean, lagunduko du Etapa guztien eskumenak soilik hezkuntza-administrazioaren mende egotea.

3.) Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan aurreikusten denez, Haur Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek etapako lehen zikloko irakaskuntzak, bigarren ziklokoak edo biak eskain ditzakete. Halaber, irakaskuntza horiek ziklo osoa edo zikloaren soilik zati bat barne har dezakete. Aipatutako arauak eragozpenak eragin ditzake proiektu pedagogikoak ondo garatzeko etapan, baldin eta ikaslearen eskolatzearen jarraitutasuna eteten bada ikastetxean.

Horregatik, hezkuntza-administrazio eskudunei eskatzen zaie horri buruzko ikerketak egiteko eta txosten egokiak gauzatzeko, betiere ikerketa eta txosten horietatik ondorioztatzen bada indarrean dauden lege-aurreikuspenak aldatu behar direla aldatzeko beharrezkoak diren prozedurei hasiera emateko.

4.) Haur Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan dagoen egoera dela-eta, oso komenigarria da Hezkuntzako Sektore Konferentziak eta Ebaluazio Erakundeak dagozkion adierazleak ezartzea Adierazleen Estatu Sistemari eta adierazle horiek ikastetxeko hezkuntza-izaerara egokitzea. Adierazle horiek honako arlo hauei buruzkoak izango dira: ikastetxeetako proiektu pedagogikoen (bereziki

lehen ziklokoak) kalitatea, ikastetxeetako gutxieneko baldintzen aplikazioa, ikastetxeen eta hezkuntza-zerbitzuaren titulartasuna, ikastetxe horiek artatzen dituzten profesionalen titulazioa eta sexua, ratioak, kalitatea, hornidura eta aniztasunari erantzuteko baliabideak aplikatzea eta ziklo desberdinak ematen dituzten ikastetxeen arteko koordinazioa.

5.) Haur Hezkuntzako eskolatzeko datuak –Txosten honen xede den ikasturtean ikastetxe publikoetan eta pribatuetan eskolatutako ikasle atzerritarrei buruzkoak– kontuan hartzen baditugu, eta datu horiek aurreko ikasturteko datuekin alderatzen baditugu, egiazta dezakegu eskolatzeko horretan dagoen desorekari eusten zaiola.

Egoera horretan, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei proposatzen die ikasle atzerritarren eskolatzeko ekitatiboa berma dezatela funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztietan, oinarritzko araudi baten bitartez. Araudi horrekin batera laguntza-plan espezifikokoak prestatu beharko dira hezkuntzarako eskubidearen berdintasuna bermatzeko, dagokion ikasleak eskolatu behar duen ikastetxea edozein izanik ere. Araudi horrek, bestalde, ikasleak onartzeko irizpideak arautuko ditu, ikasle publikoen eta pribatuen artean egun dagoen desoreka gaindituz.

2. Derrigorrezko hezkuntza

1.) Txosten honetan dauden datuetatik ondorioztatzen da gaitasun-tasak (daukaten adina kontuan hartuta dagokien ikasturtea egin duten ikasleak) handiak dira 8 urte dituzten ikasleen artean, tasa hori adin horretan % 93,4 baita, baina tasa horiek jaisten doaz % 59,6ra iritsi arte 15 urteko ikasleen artean. Horrek erakusten du derrigorrezko irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikasturteren bat errepikatzen duten ikasleen ehunekoa handia dela. Nolanahi ere, estatuko nahiz nazioarteko hainbat azterlanetan (Diagnostikoaren

Ebaluazio Orokorra, 2009. Lehen Hezkuntza, baina Hezkuntzaren Egoera, 2010. OCDE. Espainiako txostena) ikusten da ikasturtea errepikatzearekin batera ez bada eraginpeko ikaslearen laguntza pertsonalizatuko plan espezifikorik ezartzen, ez dela inola ere bermatzen hezkuntza-sistemak lortu nahi dituen helburuak erdietsiko direnik.

Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatzen die ikasturtea errepikatzearen problematika espezifiko lurralde bakoitzean lantzeko eta horri buruzko politikak –derrigorrezko hezkuntzako ikasturte bakoitzeko hezkuntza-helburuak lortzeko arazo handiagoak dituzten ikasleei banakako laguntza ematean oinarrituta daudenak– garatzeko derrigorrezko hezkuntzan.

2.) Txosteneko datuetatik ondorioztatzen da azken bi ikasturteetan hobekuntzak izan badira ere, ikasle kopuru handi batek ez duela oraindik lortzen ikasturtez igotzea oinarritzko hezkuntzan eta ez dutela Graduatu titulua lortzen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen dutenean. Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen eta hezkuntza-premia bereziak dituzten eta ikasketak bukatzen ez dituzten edo Bigarren Hezkuntzara igarotzean eskola uzten duten ikasleen tasa handiak murriztera bideratutako baliabideak areagotu egin behar dira, eta horretarako, ikasle bakoitzari ematen zaion arreta pertsonalizatua kasu hauetan bereziki gomendatzen den tresna da.

Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei dei egin die ildo horretan garatzen diren planak, programak eta jardunak sustatzeko. Bereziki garrantzitsuak dira lurralde-lankidetzako PROA Plana abian jartzearen ondorioz lortutako emaitza onak; nolahi ere, gomendatzen da Plan horren aplikazioa ikastetxe gehiagotara zabaltzea, Planaren jardunek ikastetxe eta ikasleen ehuneko urri bati eragiten baitiote.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak atsegin handiz hartu du orain dela gutxi onartutako Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legean azaltzen den aukera, zeinak ahalbidetzen duen ikasleak prestakuntza-zikloetan sartzea baldin eta DBHn ikasten diren Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak gainditzten badira. Horri esker, baliabide bat dago ikasle askok hezkuntza-sistema ez uzteko inolako titulaziorik gabe.

Aipatutako Legeak ezarritako neurria ahalik eta eraginkorra izan dadin, Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez nahitaezkoa izango litzateke aipatutako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak DBHko irakaskuntzak ematen dituzten eta horien premia duten ikastetxe itundu publiko eta pribatuetan ezartzeko hezkuntza-administrazioek egiten dituzten ahaleginak sustatzea.

4.) Txosten honetako datuek erakusten dute emaitza akademikoak desberdinak direla mutil ikasleen eta neska ikasleen artean. Egoera horren azken kausei buruzko azterlana lasai, zientifikoki eta behar adinako patxadaz egin behar da alderdi asko dituen egoerari buruzko azterketa egin ahal izateko, izan ere egoera horrek berak ez du gomendatzen gaiari buruzko hurbilpen maximalista egitea.

Estatuko Eskola Kontseilu honek hezkuntza-administrazioei eskatzen die hezkuntza-aukera berdina bultzatzen dituzten kanpainak –ahaleginaren, berdintasunezko hezkuntzaren eta kulturaren balioa ikasle guztien sustapen pertsonala eta soziala lortzeko tresna egoki gisa sustatzen eta nabarmentzen dutenak– sustatzeko ikasleen sexua kontuan izan gabe; horretarako, agerian jarriko dute prestakuntza akademiko eta profesional kualifikatua izatea gero eta beharrezkoagoa dela ikasle guztiak etorkizunean lan-munduan baldintza berdinetan sar daitezen lortzeko.

5.) Atzerriko hizkuntza batean eta ikaslearen berezko hizkuntzan edo hizkuntzetan egindako curriculum-programa elebidunak edo hirueledunak–hainbat hezkuntza - administraziok beren lurralde-eremuetan abian jarri dituztenak– ezarri Lehen

Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzen maila hobetu izana positiboa da Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez, zeren hizkuntzak jakiteak gure gazteen mugikortasun akademikoa eta lan-arlokoa faboratuko baitu.

Nolanahi ere, programa hauek ezartzearen ondorioz Administrazio batzuetan sortu diren arazo batzuei buruzko iritzia eman behar du Kontseilu honek. Lehenik eta behin, Estatuko estatistika-zerbitzuei eta Ebaluazio Erakundeari eskatzen zaie Estatuko lurraldeetan ezarri diren programa elebidunen kopuruarekin lotuta dauden eta beharrezkoak diren estatistika-datuak eta adierazleak eduki ditzatela, baita eraginpean hartutako ikastetxeen eta ikasleen kopurua eta orain arte gauzatutako esperientzien emaitzak ere. Bigarrenik, programa horiek ezartzeak ez lieke inola ere eragin behar ezarpen hori egingo den ikastetxeetako irakasleen eskubide finkatuei. Gai hori dela-eta, joan den urteko Txostenean adierazten zenez, curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzetan soilik emateak modu negatiboan eragin liezaioke eduki horiek ikaslearen berezko hizkuntzan jakiteari; horregatik, alderdi hori arreta handiz zaindu beharko litzateke, bereziki curriculumenean funtsezkotzat har daitezkeen gaiak direnean.

Estatuko Eskola Kontseiluak biziki gomendatzen du atzerriko bigarren hizkuntzak derrigorrezko irakaskuntzaren barnean erakusten jarraitzea irakaskuntza elebiduna ikasten duten ikasleei nahiz irakaskuntza mota hori ikasten ez duten ikasleei.

Azkenik, Kontseiluaren arabera, curriculum-programa elebidunak aplikatzen dituzten eta desgaitasuna duten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeetan (hori eskatzen duten ikasleentzat, behintzat) malgutasun-neurriak eta/edo alternatibak ezarri beharko lirateke atzerriko hizkuntza ikasteko metodologietan ez ezik lortutako maila egiaztatzeko eskakizunean ere, bereziki ahozko adierazpenari dagokionez.

3. Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoak

1.) Ikasturte honetan hobera egin dute 17 eta 18 urteetako ikasleen eskolatzetasek eta titulazio-tasek derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoetan. Hala eta guztiz ere, 2010erako Europan ezarritako helburutik 20 puntutik gorako aldea dugu – irakaskuntza hauetako titulazioen % 85– eta oraindik ere desoreka dago ikasketa akademikoen eta lanbide-ikasketen artean. Horregatik, oraindik ere indarrean jarraitzen du Kontseiluaren azken txostenetan errepikatzen den gomendioak: hezkuntza-administrazioek lanbide-irakaskuntzen matrikulazio eta titulazio kopurua igotzera bideratutako neurriak hartu behar dituzte. Ildo horretatik, Kontseilua pozik dago Hezkuntza Ministerioak Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa Lurralde Lankidetzako Programen barruan sartu duelako, horrek lanbide-arloko informazioari eta orientazioari bultzada handia eman baitiezaioke. Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei proposatu die lanbide-orientazioko baliabideen mapa gauzatzeko eta publiko egiteko estatuan *TodoFP* atariaren bitartez eta prestakuntza-nahiz lanbide-arloko ibilbideak eskaintzeari eta ibilbide horiek produkzio-sistemaren eskaeren gorabeheretara egokitzeari buruzko informazio-kanpainak sustatzeko.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak modu positiboan balioesten du DBHko azken ikasturtearen izaera orientatzailea indartu izana, aurreko urteko txostenean eskatzen zen bezala. Neurri hori eraginkorra izan dadin, Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die proposatzen diren aukeren kalitatea bermatzeko eta ikasleen inolako bereizketarik ez egiteko. Halaber, funtsezkoa da DBH 3. eta 4. mailetakako ikasleek informazio zabala izatea (lanbide-familiak eta Bologna Planean biltzen diren unibertsitate-ikasketen diseinua barne), beren gaitasun eta interesetara gehien egokitzen den modalitatea edo bidea aukeratzea ahalbidetuko diena.

Batxilergoari dagokionez, Kontseilua oso kezkatuta dago eskola uzten duten ikasleen indizea handia delako, ikasturtea ikasle askok errepikatzen dutelako, batez ere

mutilek, eta zifra horiei dagokienez, kezkatuta dago, halaber, Unibertsitatera Sartzeko Proben lege-garapenarekin eta garapen praktikoarekin, Batxilergoko ikastetxeetan duten eraginarengatik. 2009/2010 ikasturtean lehenengo ikasturtetik bigarrenera igotzeko neurriak –Sektore Konferentziak hartu dituenak– eta Unibertsitatera Sartzeko Probak eredu berriaren arabera aplikatzeak azterketa arduratsuaren xede izan behar du. Neurri horiek aipatutako parametroetan eragin handirik ez badute, eragin handiagoko lege-neurriak aztertu eta aplikatu beharko lirateke, etapa honetako helburuak ikasle gehiagok lortzea ahalbidetuko luketen neurriak, hain zuzen ere.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak berriz ere aipatu du Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloetako matrikula kopurua igotzera bideratutako neurri guztiak babestuko dituela: Lanbide Heziketako Tituluen Katalogoen garapena LOEren esparruanosatzea, titulu horiek HLPPen bitartez lortzen laguntzea ezartzen diren borondatezko moduluak egin ondoren, irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxeen kopurua handitzea kalitate-bermeekin eta Prestakuntza Lantokietan (PL) deituriko modulua sustatzea, PLa Europako herrialde batean egiteko aukera emanez. Horretarako, hezkuntza-administrazioei eskatzen die neurri horiek guztiak abian jartzera eta hezkuntza behar baino lehen ez uztera bideratutako baliabideak ez murrizteko, Lanbide Heziketako ikasleentzako beka espezifikoen plan bat eta ikasle eta enpresentzako pizgarri ekonomikoak ezarriz, prestakuntza-enplegua formula konposatuak garatzen laguntzeko, prestakuntza eta denbora partzialeko lana bateragarri egitea ahalbidetuz.

4.) Langabezia-tasak handiak izaten jarraitzeak justifikatzen du Kontseiluak egindako gomendioa goi-mailako bigarren hezkuntzako maila lortu ez duten helduak hezkuntza-sistemara itzultzeko. Heldu horientzat prestakuntza-eskaintza handitu egin behar da, DBH titulua edo Erdi mailako Teknikariaren titulua lor dezaten. Horretarako, nahitaezkoa da tituluen eskaintza areagotzea, presentziazko irakaskuntzen malgutasuna handitzea eta irakaskuntza horiek gauzez ematea eta

teleprestakuntzako eta urrutiko prestakuntzako plataformak garatzea. Kontseilua pozik dago hezkuntza-administrazioek konpromisoa hartu dutelako Internet bidezko Lanbide Heziketako urruneko hezkuntza-plataforma estatu- eta autonomia-eremuan abian jartzeko, eta gomendatzen du Hezkuntzako Sektore Konferentziak mekanismo egokiak ezartzea horien eragina balioesteko eta eskaintzaren harmonizazioa lortzeko Estatuko lurralde osoan.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak egindako azken txostenetan gomendatzen zuen bezala, 2010ean lan-esperientziaren eta ikaskuntza ez-formalen bitartez lortutako gaitasun profesionalen ebaluazio-, aitorten- eta egiaztapen-prozesuari ekin zaio. Kontseiluaren ustez oso positiboa da Hezkuntza Ministerioak neurri hori Lanbide Heziketako Plan Estrategikoan sartu izana, Lurralde Lankidetzako Programen barruan. Nolanahi ere, bere irismen osoan gara dadin, eta langileen mugikortasuna berma dadin, ezinbestekoa da gaitasunak ebaluatzeko, aitortzeko eta egiaztatzeko deialdiak al bait lasterren eta modu berdinean eta koordinatuan egitea Estatu osoan, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala erreferentzia gisa hartuta. Horretaz gain, hezkuntza-administrazioei eskatu die prestakuntza-eskaintza espezifikoak eta nahikoak garatzeko egiaztatutako pertsonentzat, horien premiak produkzio-sistemaren premiekin eta enplegu-politika aktiboekin elkartz.

4. Hezkuntza-inbertsioa

1.) Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez, gaur egun bizi dugun ekonomia- eta finantza-krisialdi sakona bada ere, egoera horrek ez du ekarri behar administrazio publikoek hezkuntzan egiten duten inbertsioa murriztea. Hezkuntza-inbertsioa zutabe sendoenetako bat da hazkunde ekonomikoa sustatzeko, enplegu-maila igotzeko eta krisialditik ateratzen laguntzeko.

Estatuko Eskola Kontseiluak, aurreko ikasturtean egin zuen bezala, berriz ere eskatzen die administrazio publikoei hezkuntza-arloan egiten duten inbertsioa igotzeko, hori baita bitartekorik egokiena hazkunde ekonomikoari laguntzeko eta egungo egoera gainditzeko laguntzeko. Hezkuntza-alorreko arduradunek Europar Batasunaren barruan behin eta berriz egin dituzten baieztapenekin bat etorriz, hezkuntza-inbertsioan egiten diren murriztapenek kontrako norabidean jarduten dute eskola-porrotari eta eskola behar baino lehenago uzteari dagokionez. Esan behar da hezkuntza-sektorean orain egiten diren gastu-murrizketek eskola-porrotaren eta sistema behar baino lehen uztearen ondorioz sortzen diren azaro sozialak eta pertsonalak ekar ditzaketela etorkizunean, eta, horren ondorioz, baliabide publiko garrantzitsuak eman beharko dira sortutako egoerari erantzuteko, orain murrizten diren baliabideak baino baliabide handiagoak, eta, are gehiago, beharrezkoa izanez gero, Europako egiturazko funtsak erabili beharko dira; zeren hezkuntzaren hobekuntza eta prestakuntzak eta enplegua hobetzeko duten inplikazioa Europako helburu estrategikoa izango baitira 2020rako. Aurreko guztiari biztanleriaren sektore batzuetako prestakuntzan sor daitezkeen gabezien ondorioz aberastasunaren hazkundera sortutako kalteak erantsi behar zaizkio.

2.) Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarritako ildotik, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek hezkuntza-arloko inbertsio publikoa igotzeko plan bat adostu behar dute Legea indarrean jarri eta ondorengo hamar urteetarako, hezkuntza-inbertsioa eta Europar Batasuneko herrialdeetako batez bestekoa berdinak izatera irits daitezen pixkanaka. Hezkuntza-inbertsioak gaur egun Autonomia Erkidego guztietan izan duen jaitsierak (Autonomia Erkidego askotan aurrekontu-ekitaldia bat baino gehiago hartzen du eraginpean) zalantzan jartzen du helburu hau lortuko ote den.

Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei proposatu die ahaleginak areagotzea Legeak aipatzen duen planari buruzko akordio bat lortzeko. Gure hezkuntza-inbertsioa Europar Batasuneko herrialdeetako batez bestekoarekin berdintzeak ez du inondik inora etenda geratu behar gaur egun bizi dugun

ekonomia- eta finantza-krisialdiaren ondorioengatik, horrek modu negatiboan baldintzatuko bailuke gure ekonomiaren hazkundera etorkizunean.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak azken Txostenetan hezkuntza-administrazioei egindako proposamenetan ezarritako ildo berari jarraiki, hezkuntzako gastu publikoa igotzeak gure herrialdeak gure inguruneko herrialdeetan hezkuntzara bideratutako baliabideekin alderatuta historian zehar izan dituen gabeziak konpentsatu behar ditu.

Horretarako, proposatzen da hezkuntzako inbertsio publikoaren igoerak Barne Produktu Gordinaren % 7 lortzea pixkanaka.

4.) Ikusten da herri-administrazioek egindako hezkuntza-inbertsioa oso heterogeneoa dela, eta horrek zuzenean eragin dezakeela eskaintzen den hezkuntza-zerbitzuaren kalitatean, ikasleek lortzen dituzten emaitzetan eta Estatuko lurraldeen kohesio sozialean.

Estatuko Eskola Kontseilua kezkatuta dago egoera horrekin eta Hezkuntzako Sektore Konferentziari gomendatzen dio beti eutsi beharko litzaiokeen hezkuntza-inbertsioaren gutxieneko maila ezartzen duen akordio bat lortzeko egokitasuna aztertzeko; izan ere, maila horretatik behera konprometituta geratuko litzateke ikastetxe itundu publiko eta pribatu guztietan kalitatezko hezkuntza-zerbitzua ematea.

5.) Kontuan izan behar da behin eta berriz aipatu dugun eta gaur egun bizi dugun ekonomia- eta finantza-krisialdiak ikuspegi berriak behar dituela hezkuntza-inbertsio publikoan eta inbertsio hori gauzatzen den plan, programa eta jardunetan. Hortaz, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei eskatu die hezkuntza-zerbitzura bideratutako gastuen jarraipena egiteko

ahaleginak muturreraino eramateko, erabilitako baliabideak optimizatuz. Ildo horretatik, zerbitzua ematerakoan ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handiena izateak hezkuntza-gaitasunak dituzten lurraldeko administrazioen artean koordinazioa eta lankidetzaren muturreraino eramatea ekartzen du berekin.

Era berean, Kontseiluak eskatzen du Hezkuntza Sistemaren Finantziarioari buruzko Legea egitea, Autonomia Erkidegoek babestuko duten Legea, sistemaren baliabideen nahikotasuna bermatuko duena denbora-tarte mugatuan, LOEn nahiz Lege horren legezko azken aldaketetan biltzen diren hobekuntza-neurriak aplikatuko direla bermatzen duena, eta Lanbide Heziketa bultzatzeko, Europar Batasuneko 2020rako hezkuntza-helburuak lortzeko kostuak aintzat hartzen dituen eta hezkuntza-inbertsioaren erkidegoetako batez besteko txikienak estatuko batez bestekora hurbiltzeko neurriak adostea eta egungo desberdintasunak konpentsatzea ahalbidetzen duena, besteak beste.

5. Berdintasuna, bizikidetzaren eta partaidetzaren ikastetxeetan

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak aitortzen du hezkuntza-administrazioek eta Bizikidetzaren Behatokiak legeria eguneratzeari dagokionez, bizikidetzari eta eskola-giroari buruzko azterlan espezifikotan bildutako gomendioak hedatzeari dagokionez, eta, oso bereziki, jardunbide egokiak hedatzeari dagokionez egin duen lana. Baina aurrera egiten jarraitu behar da errespetuan oinarritutako eskola-giroa faboratzeko, hori baita plataformarik hoberena eskola-errendimendu egokia lortzeko. Hori lortzeko, Kontseiluak proposatu du ikastetxeetako bizikidetzari eta eskola-giroari buruzko adierazleak egiteko, balioak eta ohitura zibikoak hartzeari dagokionez hartutako neurriak hobetzearen inpaktua ebaluatu ahal izateko. Era berean, gomendatzen da araudi espezifikoa eta oinarritzak onartzea, ikastetxe guztiek beren Hezkuntza Proiektua eta Bizikidetzaren Plana abian jartzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izan ditzaten bermatzen duena.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak badaki eskola-klima hobetuko dela baldin eta Administrazioek, ikastetxeek eta familiek ikastea sustatzen badute eta irakasleen lanaren ospea areagotzen bada, komunikabideek ikastetxeak kultura- eta prestakuntza-inguruneak direla erakusten badute eta hezkuntza-komunitateak, ikastetxe itundu publiko eta pribatuen kasuan, bizikidetzara-arauek eta komunitate hori osatzen duten kolektiboen arteko harreman-arauek adosten badituzte. Irakasleen aintzatespena eta aginte moralak eta profesionalak sustatzen jarraitu behar da eta hainbat alderdiri buruzko gogoeta egin behar da, hala nola ikastetxe horietako irakasle guztientzako oinarritzako araudia egitea estatuan, hainbat neurri ahaztu gabe, hala nola lanbide-profil berriak hezkuntza-zeregina osatzen duten ikastetxeetan sartzeko eta orientazio-sarea eta gatazkak konpontzeko dagokionez irakasleen prestakuntza hobetzea, besteak beste.

3.) Hezkuntza-sisteman gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzera bideratutako jardunak –genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legean ezarritako daudenak eta LOE Legean bilduta daudenak– eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa abian jartzen hasi dira erritmo desberdinetan Autonomia Erkidegoen arabera. Jardun horien betetze-maila balioesteko, Estatuko Eskola Kontseiluak gomendatzen du hezkuntza-administrazioek adierazle egokiak ezartzea, sexuen arabera banaketa oraindik biltzen ez duten hezkuntzako estatistikak sexuaren arabera banatzeko, genero-indarkeriaren eraginpeko mutil ikasleek edo neska ikasleek kasuetan beharrezkoak diren jardunak gauzatzen eta ikuskapen-zerbitzuen eta ikastetxeetako eskola-kontseiluen barruan izendatutako pertsonen prestakuntza espezifikoak gauzatzen laguntzen duten protokoloak ezartzea, ikastetxeetako bizitza-eremu guztietan benetako berdintasuna bermatzeko, neurri hori abian jarri izana eta eraginkortasuna urtero ebaluatuz.

Halaber, eta baterako hezkuntza lortzen ez ezik, eskola-curriculumenean azaltzen diren balioak hartzen ere laguntzeko, Estatuko Eskola Kontseiluak uste du ez dela

hitzarmenik sinatu behar sexuaren arabera bereizitako ikasleak eskolatzearen aldeko apustua egiten duten ikastetxeekin.

4.) Gizarte-sektoreek hezkuntzan duten partaidetza, behar bezala neurtzen ez dena beti, oinarrizko printzipio konstituzionala da. Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez nahitaezkoa da partaidetza horren egoera zehatza zein den jakitea, eta horregatik, hezkuntza-administrazioei proposatzen die ikasleek eta familiek ikastetxeetan eta ikastetxeko Eskola Kontseiluan ordezkariak hautatzeko prozesuetan duten partaidetzarekin lotutako adierazleak areagotzea eta Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistemari sartzea. Gomendatzen da, halaber, Hezkuntza Sektore Konferentziaren Estatistika Batzordearen barruan honako hau aztertzea: egokia ote den unibertsitate aurreko irakaskuntzetan ikasleen eta ikasle horien gurasoen asoziazionismoarekin lotutako alderdiak Espainiako Hezkuntzari buruzko Estatistiketan sartzea, asoziazionismo horri dagokionez autonomia-erkidegoetako erregistroen eta errolden irizpideak bateratzeko eta homogeneizatzeko, betiere estatuko datuak eransten laguntzeko.

Familiek hezkuntzan parte hartzea lan- eta lanbide-arloko betebeharrak baldintzatzen dute nabarmen, eta askotan, ez dira bateragarriak eskolan duen presentziarekin, ez parte hartzeko jarduerak garatzeko, ezta beren seme-alabek jasotzen duten hezkuntzaren jarraipen zuzena eta egokia egiteko ere. Honako gai honen inguruan gogoeta egin behar dugu: hezkuntza-arloan familiek beren gain hartu behar dituzten erantzukizunak erabat aldatu behar dira bizimoduari, hiriko proiektu politikoei eta familia- eta lan-denboraren antolamenduari dagokionez. Beraz, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die gurasoen lan-bizitza eta seme-alaben eskola-bizitza uztartzeko neurriak har daitezen sustatzeko.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak behin eta berriz aipatu du aurreko txostenetan egindako eskaera, hau da, Hezkuntza Ministerioak, Autonomia Erkidegoen berezko

eskumenei kalterik egin gabe, partaidetzari buruzko araudi bat sustatzeko, familien eta ikasleen partaidetza, zuzenean, edo erakundeen bitartez, garatzeko baliabide materialak eta ekonomikoak arautu eta bermatuko dituen araudia, alegia. Ildo horretatik, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die ikasleen eta horien gurasoen eskola-eremuko elkartzeko mugimendura bideratutako diru-laguntza publikoen zenbatekoa eguneratzeko eta handitzeko.

6. Desgaitasunaren ondoriozko hezkuntza-premiak dituzten ikasleen inklusioa

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die desgaitasunaren ondoriozko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza inklusiboaren Plan espezifiko bat onartzeko eta garatzeko. Plan horretan bilduko diren neurriak, zeharkakoak direnez nahitaez, Lurraldeko Lankidetzaren Programetan bildu behar dira. Era berean, Kontseiluak proposatzen du Administrazioek, erakundeek eta entitateek elkarrekin lankidetzan jardutea sentsibilizazio-kanpainak eta jardunbide egokiak hedatzeko kanpainak sustatzeko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza integrala bermatzeko.

2.) Ikasle guztiek arrakasta akademikoa eta pertsonala lortzen dutela bermatzeko, funtsezkoa da desgaitasunaren ondoriozko laguntza emateko hezkuntza-premia espezifikoak garaiz identifikatzea eta premia horiei tratamendu egokia ematea eskolatze osoan. Horregatik, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die honako hau bermatzeko: ikasleen premien aniztasunari arreta integrala emateko modua biltzen duten hezkuntza-proiektuak eta planak egitea ikastetxeek, diagnosi-ebaluazioek batik batik ikasle horiek kontuan hartzea premia atzeman ondoren berehala esku hartzen laguntzeko baliabideak aurreikusiz, eta irakasleen prestakuntzan –hasierakoan eta etengabean– hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta integralari buruzko edukiak bil daitezzen bultzatzea, gaur egun dauden baliabide didaktikoen, teknologikoen eta abarren berri izanik, eta

prestakuntza horrek, ahalbidetuko du aukera-berdintasunez eta kalitatearen nahiz ekitatearen terminoetan artatzea ikasle horiek.

Bereziki, ingurune digitaletarako irisgarritasun unibertsala bermatu beharko da, bai nabigazioari dagokionez, bai edukietarako sarbideari dagokionez, baita eduki horietan biltzen den informazio guztiari dagokionez ere, desgaitasunak dituzten ikasleak hezkuntza-inguruneko digitalizaziotik kanpo ez geratzeko. Irisgarritasun-eskakizunak irakasle guztiek eta gailu horien erabileran esku hartzen duen gainerako langileek diseinuaren inguruan jasoko duten prestakuntzara ere hedatu behar dira, baita prestakuntza-material gisa erabiltzen diren eduki digitalak sortzera ere.

3.) Sarbidea (ikastetxeetara eta ikastetxeko eremuetara, komunikaziora eta informaziora, baliabide eta material didaktikoetara, laguntza teknikoetara eta IKTetara eta eskola-garraio egokitura...) ez ezik desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza-sisteman jarraituko dutela eta sustatuko direla ere bermatzeko, hezkuntza-administrazioek laguntza- eta orientazio-neurriak ugaritu egin beharko dituzte eta desgaitasuna duten ikasleei laguntza jasotzeko baliabide egokiak emango zaizkie etapa guztietan. Horregatik, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu die ikastetxe itundu publiko eta pribatuei emateko arestian aipatu ditugun ezaugarriak dituzten ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko eta ikasle horiek integratu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak, bereziki ikastetxe arruntei. Bestalde, gomendatzen dugu, alde batetik, hainbat ikasle Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetan (HLPP) sartzea, betiere ikusten baldin bada hori dela aukerarik hoberena ikasle horiek derrigorrezko bigarren hezkuntzako etaparen helburuak lortzeko, eta bestetik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egindako ikasketen ziurtagiri partziala ematea.

4.) Hezkuntza-etapa batzuetatik besteetara igarotzea beste zailtasun bat gehiago izaten da desgaitasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten

ikasleentzat. Hori dela-eta, Estatuko Eskola Kontseiluak proposatzen du maila desberdinen artean koordinatzeko programak egitea eta ikasle horiei behar bezalako orientazio psikopedagogikoa ematea, ikasle eta familiei informazioa eta aholkuak emanaz ikasle horien gaitasun eta jarrerari hobekien erantzuten dieten hezkuntza-eta lan-aukerei buruz, prestakuntza-prozesuan bideratuz, eta, era horretan, lan-munduan sartzen lagunduz. Horrek guztiak eskatzen du profesionalak, ikastetxeak eta administrazioek elkarlanean jardutea, beharrezkoak diren hezkuntza-laguntzako neurriak hartzeko.

5.) Familiek eskola-bizitzan parte-hartzea oso garrantzitsua da kasu honetan. Ikastetxeek lankidetzarako bide egokiak eskaintzen dituztela zaintzeaz gain, hezkuntza-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte ikasle horien gurasoek banakako aholkularitza egokia ez ezik beren seme-alaben hezkuntzan lagunduko dien beharrezko informazioa ere jaso dezaten. Horrenbestez, Kontseilu honek administrazioei eskatzen die familien parte-hartzea gauzatzeko desgaitasunetik eratorritako hezkuntza-laguntzako neurri espezifikoak behar dituzten seme-alaben eskolatzeari eta hezkuntza-prozesuei eragiten dieten erabakiak hartzeari dagokionez.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN